

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

ORDENANTZA FISKALA, KIOSKOAK BIDE PUBLIKOAN JARTEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua: KONTZEPTUA.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 28ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen bagilaren 30eko 5/89 Foru Arauaren 15-18. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrita, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasea ezarri da, bide publikoan kioskoak jarreak dakarrena hain zuzen be. Tasa hori ordenantza fiskal honek eraenduko dau, eta haren arauak Foru Arau horren 20. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dabe.

2. artikulua: ZERGA EGITATEA.

Herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa da zerga egitatea.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA.

Zergadun lez subjektu pasiboak dira lizentziak edo emakidak jasoten dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak, baimen egokirik barik gauzatu badira.

4. artikulua: TASA KUOTEA.

Honeexek osotuko dabe tasa kuotea:

- a) Emakidaren kanona, emakida barriak aplikatzeko.
- b) Hiruhileko tarifa m2ko aplikatzeko, ordenantza hau onetsi daneko indarreko emakidetarako.

5. artikulua: KANONA ETA TARIFAK.

Enkantearen errematearen tarifa adjudikaturiko eremuari aplikatzearen emoitza zenbatekoa izango da emakidaren kanona, eta metro koadroko lizitazioaren gutxieneko kopuruak izango dira aldean arabera, adjudikazio aldia 10 urtekoa danean:

	2018
1. aldea	626,70 €
2. aldea	460,53 €
3. aldea	297,01 €
4. aldea	250,67 €
5. aldea	199,99 €
6. aldea	152,56 €
7. aldea	132,41 €
8. aldea	118,78 €
9. aldea.....	82,29 €
10. aldea	65,29 €

11. aldea	47,17 €
12. aldea	25,58 €
13. aldea	4,67 €
M ² -ko edo zatika hiruhileko tarifak, ordenantza hau onetsi baino arinagoko emakidei jagokezanak, honeexek dira:	
- Lamera.....	67,65 €
- Tala.....	6,50 €
- Erribera.	13,01 €

Instalazio barrien kasuan, 10 urtetik gorako aldian, lizitazioaren gutxieneko kopuruak azterketa honetan agertzen dan alde muetaren eta erabilera muetaren arabera izango da m2ko: "Herri jabariaren aprobetxamendua eta erabilerearen tasearen balorazioaren ganeko azterketea".

6. artikulua. SORTZAPENA.

Tasea ordaindu beharra sortuko da:

- a) Erabilera pribatiborako herri jabariaren adjudikazioaren unean.
- b) Adjudikazioaren egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunean eta gero hiruhileko naturalaren lehen egunean emakidak dirauen bitartean.

7. artikulua. KITAPENA ETA ORDAINKETEA.

Holan ordainduko da tasea:

- a) Bide publikoaren aprobetxamendu barriak emoten diranean, lizentzia edo emakida eskatzen dan unean.
- b) Baimendutako aprobetxamenduak diranean, tarifako aldi natural bakoitzaren lehen egunean.

AZKEN XEDAPENA

Kiosko honeen araubideari kalterik egin barik ulertuko da ordenantza hau: Lamera 2.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udaltzarak 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eta haren aldaketak 2000ko abenduaren 30ean argitaratu ziran BAOren 251. alean. Halanda ze, 2001/01/01ean sartu zan indarrean eta indarrean jarraituko dau harik eta beren beregi aldatu edo indarririk barik itxi arte.